

TRANTSIZIO DIGITAL ETA BERDEA DIRULAGUNTZA PROGRAMA

Bizkaiko Foru Aldundiaren 79/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa. Honen bidez, 2021eko Trantsizio Digital eta Berdea dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onesten dira.

O nuradunak	Titulu honetan araututako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte beheko baldintzak betetzen dituzten enpresek: a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. b) Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. c) Berezko nortasun juridikoa izatea. d) Hauetariko jarduera izatea: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (eranskinean ageri dira 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN) epigrafeetatik dirulaguntza jaso dezaketenak). e) 5 eta 250 pertsona arteko langile edukitzea , lansaio osokoak urteko kopuru baliokideetan.
L aguntza lerroak	Laguntza-programak lau laguntza-lerro baditu: 1. Digitalizatorako (oinarrizkoa edo aurreratua) eta ingurumen-iraunkortasunerako planak garatzea. 2. Oinarrizko digitalizazio-proiektuak. 3. Digitalizazio aurreratuko proiektuak. 4. Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak
D iruz lagunduko diren ekintzak	Laguntza-programak lau laguntza-lerro ditu: 1. Digitalizatorako (oinarrizkoa edo aurreratua) eta ingurumen-iraunkortasunerako planak garatzea. 2. Oinarrizko digitalizazio-proiektuak. 3. Digitalizazio aurreratuko proiektuak. 4. Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak.
L aguntzen zenbatekoa	1. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da %80 diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz. 2. Erakunde eskatzaile bakoitzeko, lagundutako proiektu bakoitzean 10.000 euro emango dira gehienez. 3. Ez da 1.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango. Muga hori ez da aplikatuko laguntzaren azken zenbatekoa 10. eta 11. oinarrietan ezarritako laguntzen metaketa eta bateragarritasun irizpideen ondorioz egindako murrizketa baten emaitza bada, edo erabilgarri dagoen kreditua agortu delako egin den murrizketa baten ondorio bada.
A urkezteko epea	Eskabideak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 7an hasiko da, eta 2021eko irailaren 30eko 13:30ean amaituko da.
I nformazio gehiago	LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA 94 603 41 11 turismo@leartibai.com